

Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (eta II)

KOLDO ARTOLA*

SARRERA GISA

Ezer idazten hasi aurretik barkamena eskatu nahi nioke balizko irakurleari lan honek dakarren beranduragatik; izan ere, honen aurrekoa 1991. urtean argitaraturik izan zenetik hona denbora asko samar igaro da, nik nahi izango nukeena baino gehiago ezpairik gabe.

Duela beraz bederatzi urte inguru, honen lehen zatia inprimatzekotan zela (FLV 58), Fidela Bernat andere atseginaren heriotzaren berri mingotsa zabaldu zen –txiripaz izan bazen ere gauza bera gertatu zitzaidan 1976an, Izaba auzo-herriko Antonia Anaut andereari bildu datu batzuk argitaratzeko zirela (FLV 25), orduantxe hil baitzen andere ahaztezin hura–, eta nahiz adinean urrun iritsi denak luzaz bizitzeko itxaropen handirik ezin izan, era honetako albisteek, besterik gabe, ekarri ohi duten elkarrengandiko berezi behar soila, mingarri eta tristea ezezik eramaten zaila gertatzen da beti.

Fidela Bernat 1991eko otsailaren 23an hil zen, 93 urte zituela, hori bai, ia ohartu gabe, aurreko arratsean ohi bezala afaldu eta oheratu ondoren, gauaren erdian ondoezaren bat nabaritu eta gero. Jaio, berriz, 1898ko apirilaren 24an zen jaioa; 1925eko ekainaren 23an Pedro Ederra Lorea herri bereko semearekin ezkondu, sei semealabaren ama gertatu, eta 1988. urtean alar-guntsa geratua. Fidela anderea zendu ondoren Uztarrozen “uskaldun”en bat –ttikitari ikasi bertako mintzamoldearen jabea, alegia–, geratzen ote den galdetzen duenik bada. Ezetz dirudi ordea, ez dela jada euskalki hau min-

* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa.

tzatzeko gai den ezein lagunik, nahiz zerbait ulertu eta are, behar bada, esalditxoren batzuk esateko gauza izango den bakarren bat geratu.

Fidela Bernaten mintzamoldea, dena den, eta aditzari dagokionean bereziki, oso erosiaturik zegoen, lehen aipatu lan honen aurreneko zatian agerian geratu bezala; alabaina, erraztasunez mintzo zen euskaraz, haren senar zenak behin “grafikoki” aditzera eman bezala: “ésta, cuando nos casamos, hablaba el vasco como si estuviera leyendo el periódico”, hots, guztia jarraian, etenaldirik egin gabe, nonbait. Arrazoa ere aipatzen zen honen aurreko lanean: bere haurtzaro eta gaztaroan Latza inguruko mendikatean gurasoekin eta izeba batekin askotan ibili izana, amarekin eta izebarekin batez ere; horregatik ikasi bide zuen *noka* mintzatzen, bere azken urteetan ere, konfidantza pixka bat hartuz gero bederen, edonorekin erabiltzen zuena nahiz aldiko solaskidea gizonezkoa izan.

Noka honi buruz mintzatzean, baina, aipatzen guztiz komeni litzatekeen zera hau ikus dezakegu: Uztarrozen, gure egunotara arte iritsi zaigun hizkeran bederen, *nokako* iraganaldiko aditz laguntzaile alokutiboak oro, *tokako*en mesedetan, neutralizaturik iritsi zaizkigula. Honela, *nor* kasuarekin hasteko, *nindén/nintzén*, *zen* eta *gindén/gintzén* gisako aditz laguntzaileetatik ditugun *tokako nindiál/nintziá*, *ziá* eta *gindiál/gintziá* bezalako alokutiboek (ustez **nindua*[n], **zua*[n] eta **gintua*[n] gisakoetatik etorriak) ordezkatu bide zituzten *nokarako*, ustez ere, egokiak ziratekeen **ninduna*[n], **zuna*[n] eta **gintuna*[n] moduko egiturakoak, garai bateko hiztunek, antza, hala *toka* nola *noka* kasuetarako aurrenekoak bakarrik baliatuz. Hipotesi gisa ematen ditudan adizki horien zilegitasuna, dena den, erabatekoa iruditzen zait, Zuberoa aldean, are gure egunotan ere, indarrean direnei behatu bat eman ondoren.

Pluraleko hirugarren pertsonarekiko “egokitzapena” zailxeago ikusten da, non-ta zuzenki neutrotik erakarri ez zuten: *zren* > *zriá* (singularreko hirugarren pertsonarekiko erkaketaz edo: *zen* > *ziá*), zeren bestela ustezko **zitua*[n] batetik **z[i]tia* bat edo honen antzeko emaitza itxaron behar zela pentsa baitaiteke. Ordezkapen hau, baina, Izaban ezaguna zen eta baita Bidankozen ere, iragan mendean Bonaparte printzeak han berean bildu zituen datuek argiro erakusten dutenez, nahiz denbora hartatik hona –orduko Bidankozetik ia egungo Uztarrozera, alegia– desberdintasun nabariak izan.

Eta *nork-nor* kasura iraganez, antzeko arazoa dugu: *nién*, *zién*, *gunién* eta *zéin* aditz laguntzaileetatik ditugun *tokako niá*, *ziá*, *guniá* eta *zeiá* moduko adizki alokutiboek ere (ustez **nia*[n], **zia*[n], **ginia*[n] eta **zeia*[n] gisakoetatik etorriak, gauza jakina baita erronkarietaz iraganaldiko *hikako* alokutiboek azken -n hori galtzen dutela), ordezkatu bide zituzten, antza, *nokarako* ustezko **nina*[n], **zina*[n], **ginina*[n] eta **zeina*[n] eratakoak, lehen aipatu inoizko hiztunek, horrela, bai *toka* bai *nokarako*, aurrenekoak bakarrik hautatuz.

Ondorioz, eta Uztarrozeko *u + a = ia* emaitza kontuan hartuz, zera ageri zaigu: *zia* aditz laguntzailea, aldi berean, *zen* eta *zuen*-en, bien alokutibo dela, adibidetzat aurkez ditzakegun bi kasuetarako balio izanez: *xin zia* (= etorri zuan < etorri zen) eta *xan zia* (= jan zian < jan zuen).

Zehaztasun hauek eginik eta nire aurrekoaren bukaera aldean esaten nuena aintzakotzat hartuz, honen ondoren garai bateko zenbait lan-mota, festa, kontu eta era askotako pasadizuak jasotzen dituzten elkarrizketa

batzuk, hala nola orain arte aipatu gabeko zenbait adizki-mota –ahalera, agintera eta subjuntiboa, esaterako– ekarriko ditut orriotara, andere honek erabili ohi zituen aditz trinko urrien lagin batekin batera.

Bukatzeko, eta gutxitan ageri badira ere, aginterako inoizko aditz-hondar bitxi batzuk aipatuko ditut, 1931. urtean Azkue ikertzaile erraldoiak *Particularidades del dialecto roncalés* izeneko lanean eman zuen zenbait datutan oinarriturik.

TRANSKRIPZIOARI BURUZKO OHARRAK

Jarraiko testuak 1975-78 urteetan grabatu zinta batzutatik aterata daude, erdarazko zatiak ere, batzutan aski luzeak, hor agertzen direla euskaraz emaniko zenbait pasarte gehitu, argitu edota aberastu egiten dutelakoan. Testuok transkribatzeko orduan, hainbat bokalen irekiera dela eta, aldi askotan bi bokalen arteko soinua aditzen dela iruditu zaidanean, honela jokatu dut: *a* eta *e*-ren artekoa dela iritzirik, *ä* idatzi dut; *e* eta *i*-ren artekoa dela iritzirik, *ë* eta *o* eta *u*-ren artekoa dela iritzirik, *ö*. Azken hau izango da, seguruena, gehien erabili dudana, *xöan* hitza, adibidez, hain maiztasun handikoa izatean.

Azken *ö* haxe erabili dut gisa berean ere F.B.en erdarazko pasarteak idaztean, *cansaö*, *usaö*, *terminaö*... bezalako hitzen ahoskera nolabait islatzeko; gainerakoan, erdarazko zatiok erdal ortografia –azentuak barne– errespetatuz idatzi ditut, laburbilketa edo kontrakzioen bat gorabehera.

Eta euskarazko testuetan ere saiatu naiz ohiko ortografiari eusten; horregatik, esaterako, *tenpra* edo *zenbra* bezalako hitzak era honetantxe idatzi ditut, non-ta, ahoskerari egokitzuz gero, ziur asko, *-mp-* edo *-mb-* idatzi egin beharko bainukeen.

Zenbait esaldi, gainera, lehen aipatu euskara honen erosioaren ondorio, aski desitxuraturik iritsi zaigu, eta hau ez aditzari dagokionean bakarrik zeren lexikoan islatzen dena ere, esaterako, ikaragarria baita. Honelako kasuetan, eta orripeko oharrak neurriren batean bederik saihestearren, era honetan jokatu dut:

Hizkiren bat erdizka baizik edo ia batere aditzen ez dela iruditu zaidanean, parentesi batez inguraturik idatzi dut: *é(t)se*, *kalaxé(t)*, *zerbái(t)*, *gá(t)za*, *t(i)águn*, *gin(t)ziá*...

Ikusi ahal izango denez, *r* eta *s*-ren arteko borrokarik ere bada, zenbait aldiz biak edo, agian, bien arteko zerbait aditzen dela ematen baitu: *áurr(s)a*, *turr(s)ónak*... nahiz-eta *áurra* eta *turrónak* hitz hauek berak, adibidez, azken era honexetan aditzen ere diren beste zenbaitetan. Aezkoan eta Zaraitzun ere, azken ibar honetan bereziki, antzeko ahoskapen nahasiak adi daitezke.

Azentu-markak idaztean, bestalde, litekeena da lan honen lehen zatian zein oraingo honetan ageri perpaus jakin bateko azenturen bat leku berezuan ez agertzea, agian haren kokapenari buruzko nire orduko eta oraingo pertzepzioak berdin-berdinak izan ez direlako; hots, azentu-egiteak markatzean hiztunak esaldiari ematen dion intonazioa da, nolabait, islatu nahi izan dudana, nahiz halakoak zein silabaren gainean erortzen diren asmatzen hain erraz ez izan beti. Bestela esanda, intonazioari buruzko ahalik ideiarik hurbilena eman nahi nuke, ziurtasun osoz ematea ezinezkoa iruditzen bazait ere, zeren, gainera, batzutan esaldi bat bera behin-berriro entzun eta, batetik

bestera intonazio desberdinxea edo –zalantzazkoa azken batean– somatzen ote den inpresioa izaten baitut.

Hortik kanpora, lanaren bukaera aldean F.B.ek testuotan erabili lexikoari buruzko hiztegi ttiki bat agertuko da haren ulermena errazteko. Hitzzerrenda hori, lan honen lehenengo zatian bezala, “euskalki honetakoak diren hitz batzuen esanahia” izenburupean agertuko da orain ere, “inguruko erdaretatiko beste zenbaitez gehitua”, nahiz orduko hartan emaniko hitz batzuk, aipatu testuon ulermenerako komenigarriak izan daitezkeen neurrian, errepikatuko diren.

ERA ASKOTAKO PASADIZUAK

Denetarik zerbait (1975)

- Eta órai, noiz ártëo zaudéi Izában?
 - *Biar artio.*
 - Bìar ártio?, ah... àren órdian, órai, San Sèbastiánara...
 - *Bai; “àren ordian” erran du?*
 - Àrren órdian; quiere decir “y ahora a San Sebastián”, bíar xóan ta, órdian, San Sèbastiánara... eta kán trabájatra, trabájatra ásträ bérriz...
 - *“Arren ordian” erran du, dela...?*
 - Àrren órdian es, quiere decir, “y ahora”... y ahora a San Sebastián¹, eso es; àrren órdian xóanen zrèi órai San Sèbastiánara; San Sèbastiánera, éz -ánera², eta kán, àstelénian, lániaara; lániaara es, pues “al trabajo”.
- Eta gú kében orái, élurra xin ártio, élurra xin ártion éz, xóanen gi(t)zú len. Gú(k) txóanen gintzú orái... bèste... ástian ez, bèste ástian, ílabete... lénian, zórtzian edo... edo amárria, edo ámar, amárrian, óbró ez, pal Pilar allá. Xá akáitan zú kében égotiá; bi... bí sukálte, errán diez mázteari: [*alabari, nonbait*] bàdakigú zér den, bí sukálte, kében bát eta kán béste bat; àzi gúzia, família gúzia, amíntto bàtekí, gúzia xànen diàguzú óbeki. Xa? entelégatan? todo mejor, dos cocinas abiertas ya sabe lo que es... eta amíntto bat obró, guziák óbeki; baiá tenporáda bát xítan tzú kében, e(t)séixköa³... ñóttó baia...
 - *“Exeixkua” erran du? zer da kori?*
 - É(t)se es “casa pequeña”; [zuzenduz edo:] étsia ñóttö!
 - *Bai baia, nola erran du? “etseixkua”?*
 - Ètse ñóttöa... étse ñóttöa!, que es casa pequeña... bay’ánitx ónki, ánitx árgi, gúzia, ta balkón bat kór, balkóla (sic), ta kében béste balkón bát... ánitx ónki xítan bizéi⁴ kóna, tenporáda batán. Pues írur ilabéte, nolanái igàrtan tiágun, kében; morroiék irabáztan zéi ánitx... kében órai déin ánix soltura, eta udán (t)xóáitan tún eguatxá korrez, góra; kébenti góra, eguatxá, eta badéin bère... pözöa, báñatako, ta... egítan dein ánitx, eragér eta géro, kára xóan (d)ártion, kára xóán, Urúñara, eta zórtzi egúnetán irabáztan déin óbeki, óbro oráino’re. Kében egín déin kuék, puh!, neskátíl, tenporáda kontan...

¹ Literalki, baina, gazt. “pues entonces” da.

² Gauza bera esan du, zuzentzerakoan, nonbait.

³ *ezéixköa* aditzen dela dirudi.

⁴ Hots, itxuraz *xítan bizéi* = “etortzen baitzaie”, nahiz lan honen lehen zatian agerian geratu bezala, F.B.ek ez zuen, ohiki, *Nor-Nor*ko adizkiak erabiltzen.

– *Neskatil?*

– Neskatil, neskátöak... neskátöak, morróiak!... Orái morrói káur xöáitan dún Urúña, bàia... onguéki, baia óbro-óbro Izábako fiestéki; gáia Izában eta éguna kében, eta ezín móbi óitik ázkatakò, ¿ya me entiendes?... abuelák, irágo égin... abuelák irágo égin: ázka adí! órdëa dún!... ¿levántate, que ya es la hora!...

...que con Pedro [F.B.en senarra] se me ha ido a hacer un tronco de leña, pero que bajará a comer...

– *Eta kori, “ha ido a hacer un tronco de leña”, nola erraitan da?*

– Xöán dún... tronco de leña no, teas, tenemos la tea, ¿ya sabe lo que es? altsúaren egítan, amíntto bánen⁵ egítan... zébatako, súaren zébatako. Amíntto kuék egítan t(i)águn, súaren egóitakó góxanik, eta eztiágu(n), eta xöán dún abér erdéitan diénez... zòmait tronkóixko, egítako. Eta (t)xínen dún, txíten zú... bueno, le digo de, te digo de, le digo de tú, e?...

– *Nai dien gisa...*

– De tú, es igual; porque *zúkez* es una cosa, eta *yíkez* es otra. *Zúkez* es, ahora ya, había de hablarle... pues un poco ni de usted ni de tú, un poco más... amediaö; a estos chicos no *zúkez*: órden! xöán adi méndiara, ¿ves?, quiere decir “vete al monte”; *gizúna*⁶ xínen dún... ménditik, “el hombre vendrá del monte”, sí. Yo, si me pregunta cosas, pues aún podré decir mejor, pero, sin preguntar...

– *Bar ginoke xin obro, elerraitako Orreki...*

– Ah!, bai-bai, bai... yo con otro, o con otra (...) igual, sí, sí, todo en vasco; en nuestras cosas, ahora (...) pues tampoco a una no le viene todo, ¿verdad?, pero yo en una conversación que llegara toda ahora, pues la entendería, aunque... y tengo olvidadö, pero no, con otra que me acompañara y me dirá la palabra, pues sí, seguiría todo, eso ya le digo que sí.

Ler edo pinu botatzen eta garraiatzen (1975)

– *Eta lerrak edo beste arbolak egoixtan drenian, nola eragutan dra?*

– Oi? pues kóri... orái erá(g)ítan déin... ¿cómo diré?, con madera, no sé cómo llamaban...

– *Bai, baia nola eragutan dra?*

– Nóla erágutan drá?, pues... abréki, manduéki ta astuéki, étsera, égurra, égitan; lérra égotx eta... égúrra égin eta étserà, a manduéki eta astuéki. Lenáö bizagón ánitx ásto, eta zámari; órai eztíazu⁷, sólo láur mándo edo... édo zázpi mándo; gútzia útzu zue(i), xá e’bidrá xöáitan méndiará!, gúziek géntu’gu... animália. Gúk ekún diáguzu... béurr e’oro, sótoetàn, baia órai gúzia... géntan gunziá, géntu gun(t)ziá gúziak eta... ¿hala, Urúñara! Gu, zártu ginz(i)á, e’guniá bálio méndiara xöáitako, ta berzék, e’zeiá nai xöan náí⁸, màske ¿hala, Urúñara!, pues Urúñala; eta nóra⁹ bar dúgu guk xöán? emòitan déina... xátra.

⁵ Ez dago oso garbi.

⁶ Inoiz edo behin zubererara hurbiltzen ote den dirudi.

⁷ *ez diáguzu* izango da, noski.

⁸ *nái* horren errepikapenak *xöan* aditzarekiko fosilizazio-kutsua hartzen du hor, F.B.ekin izan elkarriketetan behin baino gehiagotan –beti ere *xöan* horrekiko– islatu dena.

⁹ *nóla* aditzen dela dirudi.

– *Baia kebenko zura, kamione andietan Erronkaririk kanpo eramaitan dena, nora eramaitan? Valenciara edo, mueble egitako?*

– Bai, bai, pues Valenciara, ta Rib(e)ráko... eta... por ahí... ètse'gítako órai; órai déus eré!, órai gúzia kamionétan. Lénáo eramáitan zeíá gúzia alma-diék, baia [orain] gúzia kamionétan; lérrak, kan, méndian, orái bidagó ánitx karreteríl, gùzutík, pues xóáitan zú... kamióñëak, eta kárgatan, eta éramáitan zeí, pues Urúñara eta... gúzietra; órai éz kainbéste, gúzia egítan bitú... zemén-toki, zeméntoreki; órai txíki, ánitx tíra txíki ya... madera.

– *Anitx tira txiki?*

– Tíra txíki... diéla; parátu déla, que está muy paraö, que hay poca tira, que no viene gente a comprar pinos y así... por eso se dice tíra txíki, poca tira, que hay poca tira.

Populazioa gutxitu eta etxeak hondatu (1975)

– *Zomat gente bizi da orai idian? len bino obro? txikiago?*

– Txikiáô!¹⁰... uh! ánitx txikiáô!; sólo ón etsé... dáudezu... érriak éroriík!

– *Bai? eroririk?*

– Eróririk; eróririk, bai, bai, eróririk. Xòan gen(t)ziá eta éz in káso eta... gúk xítan bégín [zuzenduz:] bigid(i)rá... tenporàda kontán, pues oráino'ré... susténtatan diágun; baia bèste ginerán zé? eta xítan... gin(t)zú... kében, vini-mos en julio y parece que no ha habido nadie habitando, y eso que parece que dejas limpio y todo pero, ¿cómo pierden las casas de no andar!, se pierden, gáltan tún gúzia(k), gáltan tún gúziak... las casas también pa tenerlas bien, hay que seguir las.

– *Bai, kori egia...*

– Egiá, egiá, gúzia; eta órai autsá tun... léxo bát eta eztokiá(g)un... arrá-patu... karpintéro bat... Kán diágun kuárto bát, gúzia aurrék, arrikáldiká, áutse déin krístal gúziak, eta ézin bíl... karpintéro bát, kristalén izártra, è'bi-tagó maske sólo... karpintéro bát, eta ánix lán, beràrentáko sólo!, ta gúzia atziriká, bétik, léxöak bentaníllöa bétik zèrratúk, egítan bitú... parece que no hay amo en la casa... y no puedes coger un carpintero... Eta tejáua?, gáztia xítan bitá eta... igártan bitá gorá, eta... arrapátan dién, bàlin badagó zómait gotéra... ¿ya me entiende?

– *Itaxur edo, nola da “gotera”? [“utaxur” esan beharko niokeen]*

– Goterá?, goterá; gotéra bát sártan dún... sabáian. El sabái es, ya sabes, sabáia, sabayá; abajo, bédëa; kóri erreziwidóra; géro... eskalerá; géro... sabáya; suél(ö)a, ta géro, txàramilagáina.

– *Nola?*

– Txàramilagáina es... la txaramíla, “la chimenea”¹¹; txàramilagáina eróri dún, “la chimenea pequ(e)... se ha caído”; eta... azkátu bar diágun, “la hemos de levantar”. Erórtan bálín badá, pues azkátu bar diagún. Eta ráfëak... bar tiágun ízari, gúziak; ráfiak, que es el raf, los rafes, los aleros que llaman, “el alero”, ráfia, en vasco es ráfiak, ráfiak... eta teják.

¹⁰ Oso sudurkari nabarmena, hori bezalako bukaeretan aditu ohi ez dena.

¹¹ *txàramilagáina*, gazteleraz, “la chimenea” baino gehiago, “el tejadillo de la chimenea” izatera dator.

Prozesionez zerbait (1976)

– *Eta Aste Saintiaz zer erran doke Orrek? elizkizun andi edo prozesione edo... prozesionerik erkitan dea?*

– Bai, órai érkínin (sic) zéi prozesión(e) báy, igártan (d)zú kàrrika bárna, la Virgen, el día de la Virgen del Rosario; el domingo del Rosario, todos ponemos en los balcones, las... telák, mantélak, eta igártan (d)zú prozesión(e)á... karríka barná, karretéradráino. Ta kór, zúbian, egítan zéi bueltá. Lenáö, xöáitan zía karríká góra kòrtik eré, eta... buéltatan zéá, karríka barná eta... baia órai, zubùtik, buéltatan dzu prozesión(e)a, góradráino, baia emán ondó¹²... buélta, ¡cómo habían de dar por todo vuelta!, está muy penoso todo...

– *Zer prozesione erran du dela kori?*

– La Virgen del Rosario, que la sacan por la calle, y toda la gente, si ahora, iría a primero de octubre, el día uno; ¡vamos, el primer domingo!...

– *Eta Aste Saintuz erkitan dea prozesionea?*

– Bai, bai, géntia, gúzia... átzia(n).

– *Nolako prozesione da kori? nola xoaitan da gentia? erkitan dreia “pasoak”?, nola, nola izaitan da?*

– Pues karríká barna! apézá... Àma Berjináreki, Àma Berjina ñóttö batekí...

– *Ez, ez, Aste Saintuko, Aste Saintukoaz galtatan dur orai Orri, Orzilare Saintuko...*

– No, esos días no hacen aquí... no se ha hecho nunca.

– *Eta “Korpus” egunean?*

– Kòrpus egúnian bai! bai; karríka bárna àstra bérriz ta... Gòre Jéinarekí et’óro, eta pálioá, eta... àurrák¹³, neskàxéák, bèztitú(k)... eta gúziak... karéki, lílirikí (sic), pa echarle. No, ¡si se olvida!, con cestos de flores para echar de vez en cuando al Santísimo... y así, y el último domingo de mayo, también, hacen otra procesión...

– *Maiatzaren azken igantian?*

– Bai, baia... úra eràmamáitan (sic) bizeiá¹⁴... neskatuék, edo mítilak edo neskátöak, Àma Berjiná ónbro(o)ka, baiárte batetán, Àma Berjiná; eta emóitan zeíá bueltá, gúzutik, kária kór, karríka barná, eta buélta karríka bárna, bitagó ánix buélta bestalá kárreterán (t)xöaitáko, eta éz etsérik eré! sólo báy, etsé bat kán... pues así... pues sí, ¡ah... cómo se me ha distraído todo!

Gazte-denboran egitatzen (1976)

– *Eta kori [paretatik eskegi gari ebakitzeko esku-lanabes bat seinalatuz] nola erraitan da?*

– “La ótza”, ótza, otzá...

– *Igitaia edo...?*

– Egitaía, eso... egitaía; egitaíak eta zoketák (...) eta alabá(k), àrrapatán diéna. Mucho, hemos segaö mucho; kónek eré [alabak, alegia] ékási zía... Nik, amíror úrtetán ikási niá... egítadra (sic), ène amá bizagón.... kòrren

¹² *edámondó* aditzen dela dirudi.

¹³ *àurr(s)ák* aditzen ote den nago.

¹⁴ *Bi(t)* aurritzia ez da egokia alokutiboarekin –kasu honetan hikakoa– uztartzeko.

gísa¹⁵, è(t)sen... anáxe kóri –badakiéla, Senén– zagöá amáren tripàn, eta ník amíror úрте, ène aitárekí... álör batán, egítara; eta géro, bí... tío eta tía, xítan biz(r)én láguntra góre¹⁶... egítara, pues ník, én átzian: “abér, fírme!”. Ek, elerráitan bizéi(n), elerráitan, eta ník: “abér irabáztan diénez! abér irabáztan diénez!, puntá ígare góra!”, entelégradu diá? yo, más firme, a ver si podía hacer tajo o más que ellos... porque ellos entre que paraban y hablaban un poco... ya me entenderéis mejor, pero yo, ya te digo, ¡cómo! ¡qué ilusión!, en los trece años aprender a segar...

Eta kónek eré ikási zía, ba(i)... kónek eré... ní binindagón... kalaxét, ònen gísa, pues biárta... ikástra; ta ¡hala!, ya bèste alabák éz déus ere, baia kónek bai, kónek egári dien báí, mandöéki... akarréatan... eta egún batéz eròri zía... mándöa, kargárekí, ta biár zí-... arrapátu génte... azkátakó a¹⁷ mándöa... se le cayó el macho, que venía cargaö de paja, a ella, y gente que pasaba tuvo que acudir a recorrer (sic) a la gente pa que le ayudaran a levantar; amíror úrtetan eta amazápi, ¡toma, no!... Bai, bai, bai... igári diaun, bai, baía, órai... baia zér bar dúgu égin?, írorogéi... írorogéi ta amazórtzi... urté?

Eta... bar guniá xöán méndiära, bát ástöan... eta béstëa tripán, éta... èta béstia... jáлма batán lótan, ah!... xöáitan giz(i)á... pues íror, bí... óren... Látziara eta karát¹⁸, y andando, antes no había carreteras... órdian é'zagöá... ébil, ébil, ébilitan; eta... ník kònekí, morrói bátekí ñótto, ásto batán, akaléro; y ella pa tenerme la criatura y yo pues, con la azada, cavar (...) ¿qué se creen?

– “Akalero” erran du? zer da kori?

– Akaléro xöán, “a caballo”... akaléro es “a caballo”... akaléro; nóra (t)xöáitan yaz? akaléro ástöan, “a caballo en el burro”.

– Uskaraz kori? akalero?

– Uskárax, akaléro, akaléro... àsto gáinian; ta méndiala xöán biär, ¡ah!, ¡toma, no!

San Joanetako ohiturak (1976)

– *Eta zer erran doke San Juan eguneko fiestaz? egia dea keben ere San Juan goxan, gazteak eta...*

– Ah! gáztiak xöáitan gitziá eguaxára! eguaxára... zankuén ekúztra!... eta mítilak, igártan eta zanköén ekúztan gúzia, por ahí, kor(r)iétan, bai. Esa era, esa cosa, lavarse los pies la mañana de San Juan en el río... órdian baziá ánix génte, mítilak sártan z(r)íá ètse... gúzietán, donde había mozas y así ¿sabes? è(t)se kóntan bétik igári dún... bizi gúzian. Ène tenprán eta alabén eta óro, sártan zía... génte; emóitan bizé(i)n pues... copa, y pastas, al que pasaba por las fiestas, baia órai xá, izárri dá gúzia kain... kàin káριο gàiza gúzia 'kúziak, pues xá... e'zéi xöáitan kalaxé(t)¹⁹. Eta... fiestétan, azkén égunián igártan zía rònnda gúzia ètse kútara (sic), [zuzenduz:] ez ètse kuétan, en todas las casas mantejolas, que más les parecía había mozos, y por las casas ricas, iban todos, cantándoles a los de la casa...

¹⁵ Nire emazteaz esan zuen hori, haurdun baitzegoen.

¹⁶ Ez dira hain maiz aditzen genitibodun horiek aditzaren ostean, aurretik guztiz arruntak izanik ere.

¹⁷ a hori bakan da hor, antzeko beste kasuren bat bada ere.

¹⁸ karáiz aditzen dela dirudi.

¹⁹ Kasu honetan ere, 4. oharrean aipatu *Nor-Nor*ko egoera baten aurrean egon gintezke.

- *Erran, erran beza uskaraz...*
- Eta... eta eráixtan zía... pues kopák eta... pásták, i(n)zagúr... –nai diéna...– gáiza bát ta bèste bát... ízagús; nai bàlin bazéi eré izagúr, i(n)zagúr, ta bestalá, pues pásta...
- *Eta San Juan goxan gaztek eguatxan zankoak ekuz ondo, zer egitan zein?*
- Déus eré, déus eré; ékuz, zánköak ékutz, que era esa cosica de la mañana de San Juan, a lavar los pies... lo demás nada...
- *Baia gero zer biltan zein? sanjuanlili biltan zeina?*
- Bai (...) sabúköa erráitan bigunièn...
- *Eta ura zertako zen on? inflamazionentako?*
- Pues... axén anitx ón²⁰, eta... ¿cómo se dice pal mal de muelas, en vasco?
- *Agin...?*
- Ágin, eta égin... bapóre; izár²¹ sopéra batán, liliák, eta bapóroa²², ágöa iríki eta égin; flemónia bàlin badagó... flemón bàlin bazagón, bai, anítx onki...
- *Eta bertz bat txokolate drezatan emon zeila, eta...*
- Bai (...) orái aurrén ta... morroiéntakó egitan zéi fiestétan, eta éin áen txokòlatadá, plaztán, y un poco de pelota y... así ya se pasaba.

Zenbait esaldi llabur (1977)

- *Nola erranen loka “si se barre la cocina queda muy limpia”?*
- Xáte zán sökáltia! ¡barre la cocina!, apálta zán sillák! eta xáte zán gúzia! ¡recoge todo, barre todo!... òntziák ekúzi tuná? ¿el fregaö ya has recogido?, óntziak, se decía óntzia(k); ¡hala! xáté zan! èku(t)zán óntziak, eta azká zan gú(t)zia... àzká zan! ¡levanta, frega todo el fregaö y levántalo!... levanta es... sí, colgarlo.
- Eta xáté zan bázterrak, gúzia! ¡barre todos los... baztérres es... toda la casa, bázterrak, que se dice; égin duná súa? ¿has hecho el fuego?, sí; ízarri duná báskaria? ¿has puesto la comida?, también; eta óntziak éku(t)zi tuná?, es... el fregaö; ¿has fregaö y recogido? sí.
- Orái nóra xöán bar dún? karrikára. Zértra? pues konpráren egíttra; ¿vas a ir a la calle? sí; ¿a qué?, a comprar(la)...

Latza inguruko bordan gazta egiten (1977)

- *Eta Orrek egin dia gazta? bai?*
- Níkék e²³ éz égin, baia... amák, ène amák...
- *Baia ekusi bai...*
- Ekúsu (sic) bai, gúzia, gúzia... gúzia diéz(t)... memoria(n), todo tengo en memoria lo que hacían, gúzia: kuajadá, matóna, gatzá, rekesóna, gúzia; nòla egitan zén? ¡buh!, fogótan eta gúzia kán... méndian, gúzia. Eta niézun... amábi edo... amaláur úrte, baia... ízagúntan diéz o e-...guártan nezú gúzietaz, gúzietaz guártan nezù. Eta èn'amá, txáistan eré aitárekí txáisgian, también muyendo en el txáisgi, eta ník, áur, ñótto, eta erráitan èmon niézun: amá,

²⁰ axén amitx ún aditzen dela dirudi.

²¹ izán aditzen dela dirudi.

²² Asimilazio ez hain arrunta, *podore* hitza oroitarazten duena.

²³ Oso bitxia; honen aurreko lanean agertu *eurkek ere* hura oroitarazten du.

tzíntzak!, ¿no entiendes?, amá, tzíntzak!... eta kán, bértzan... eznía et'óro agían eróritan zía et'óro, baiá... áur binén [zuzenduz:] áur bigindén... pues gúziak sóportan (sic) zía [barrez]... ya, ya, ya... órai, paquete y déus eré, ¡bien!

– *Konta, konta nola egitan zen gazta*

– Pues... egóixtan zeíá kuájoa; bazeíá xá éznia, la cantidad que había, kuájöan, ta... se cuajaba, kuájatan zía, eta géro egítan zeíá, espáda batekí, kolaxét, krútxea... kuajadán, eta órdëan, èdo krútxëá eta... leník krútxëa. Eta geró, egítan zeíá pues ánitx, ánitx páрте, eta géro násteka gúzia... násteka, eta géro bíltan zeíá gúzia kolaxé(t), montóia, mállo-málloa, mállo-málloa, gúziak... álte batra, eta... cuando se hacía todo el montón, bien amontaö... gúzia, géro, erkítan zeíá kolaxét e... zaudiá káxal banak, káxal, eta kolaxét, xórxe bat, que llamábamos, es un txórze, como una baciíca, y allí recogían, bíltan zeíá màtoi gúzia, el matón... eta géro egítan zeíá, pues gúzia, kolaxét: eskiéki, gúzia matxákatu, gú(t)zia, ekùtan zéila... como la natilla, hasta que se quedaba todo bien deshecho.

Eta géro, àstra berríz, pues bíltan zeíá káxalëán, káxal bát, eta... zeíá, órai káxalëán... kuérda bat, kolaxé(t), eta... prétatan zeíá gúzia, ónki-ónki-ónki... béti(k), venga a dar vuelta hasta que quedaba todo preto, y entonces empezaban... kolaxét erkítan zeíá gúzia... aplástatakò; èzne gúzia xöán zrein²⁴. Eta... zagónian duro, cuando estaba duro, erkítan zeíá káxalten, káxaliertík (!), eta... ùrdu zía... bueno, eta órdian, kében zaguá súa, su ándi bat egítan zeíá²⁵, eta izártan zeíá... árrí banak edo zerbái(t), kében, eta gaztá izártan zeíá... kántoz, súaren llamáren órdiara²⁶, e(s)ta xöáitan zía, guziák... pues aplástatan; egítan zeíá gúzia... eta egítan zeíá buélta, gatzári, eta géro, pues de canto, también, iban volviéndolo y apretando, hasta que se iba todo haciendo, èstea (sic) órdean, oráino'ré, apriétatan zeíá ónki, eta xá zagónian... éginik súa, sùarí²⁷, pues egóistan zeíá gá(t)za, gá(t)za baia... éz án(d)i. Egítan zeíá... lósa batán, parrapátan zeíá (g)átza, gáka!...

– *“Parrapatan”? zer da kori?*

– Parrápatan!, pa que se quedara bien menudica, la “sala”; en una piedra, hacían, la molían, no como ahora, hay cosas pa moler...

– *Arri batan? arri baten gainean?*

– Árrí batán, eta géro gús-zía... báratan bálín bazá (sic) azúkarra gísa, si quedaba como el azúcar la sal, pues echaban la sal al queso, de canto, ta izártan zeíá árrí bat (...) en la quesería que se llamaba, el queso, eta... de vez en cuando lo volvían, pero, baia, ipárta bálín badéin²⁸, ónki, baia si era el bochorno, malo pal queso... Cuando había cierzo, todas las puertas al aire, lo que se abría, pa que les pegara aire, pero el bochorno, malo...

– *Eta gero, zenbra...*

– Zenbrá géro egítan zeíá bérz batan; ponían a cocer en un caldero, el requesón, y lo hervían; y había leña, que había clase de leña que era mejor...

²⁴ *xöán zrein* (= joan zedin) behar luke, antza.

²⁵ *egítan zeíá* aditzen dela dirudi.

²⁶ *erdiara* izango da, seguraski.

²⁷ *suara*—edo, nahiago bada, *sutara*— itxaron zitekeen agian. Honen antzeko joera desegokiak solemizmotzat jotzen zituen Azkuek.

²⁸ *bálín bazéin* egokiagoa ikusten da, iraganaldian ari izanez gero.

– *Egur?*

– De haya o de pino... égurs, égurrez, y habían de poner leña y lo ponían colgando aquí, antes que había unas calderas así, y un elár... xelíták²⁹ eta...

– *Erran, erran beza uskaraz...*

– Kór egítan zeía gaztá, [zuzenduz:] zenbrá!, eta... málllo-mallóá, málllo-mallóá... egós, egós zénbrarí, eta géro, elkítan zeía, ónki eginík, zákuto bátena; zákuto bátet... en unos zakutos... kalaxé(t), ta egóixtan zeía gaztá kóna, eta eskórritan zía gúzia, eta géro... egítan zeía kében... orropilo bát, kuérda batekí, eta... kólgatan zeía... al aire, colgaban.

– *Tilinton izartan?*

– Íttilton; eta... segùn... idòrtan, idòrtan zía kor, zenbrá, eta géro erkítan zeía zenbrá kolaxé(t); eskítan zeía³⁰ málllo-málloa, mállo-malloá, eta... egítan zeía kolaxé(t), gáritan zía... zenbrá. Eta géro, egòixtan zeíñá³¹, áztra (sic) bérrix, gátza; kolaxét ár, eta... málllo-malloá, málllo-malloá, gúzutík, gátza émon³²; eta orobát erkítan zeía, tábla batená, kolaxét...

– *Tabla batena?*

– Tábla batén gáinëan!, edo árri edo zerbái(t)!, eta xöáitan zía kór, idór-tan... eta egún óro, pues buèlta émon, eta míratan, eta incluso egítan zía hasta... gusánöak!³³.

– *Bai? anrak?*

– Ánrak, que se decía, sí; ánrak... ta kúra gén, ta erráditàn, eta... gá(t)z amíntto bát emón, ta... jah, ya está todo olvidado!...

– *¡Qué va! ¡si se acuerda muy bien!, anitx onki eguartan oraino ere...*

– Oráino're, bai, bai... eta, e!, oráino(n) txöänen ninziá ónki ta éginen niá... baia órai xá ez. ¡Ah!, tenían un pincho, y le metían pa que sacara agua, y lo cambiaban, de vez en cuando cambiaban; ¡uh!, si me acuerdo todo yo de la muidera... y tendría doce o trece años, pero me acuerdo estupendamente, de lo que móian, de lo que hacían... de todo, de todo; tengo presente, más presente que...

– *Eta non ebiltan zen Ori? zoin menditan?*

– Pues sierrán, Làza bórtian, Látzian, ánitx... méndi; eta ánitx atajéro bizagón, pues báneq zeía... éin, beste bátek bierréin (sic), eta... cada cual hacía pues su atajico, unos con cien, otros con doscientos, lo que sea, pues se hacían su queso pa la casa, pa casa y pa vender...

Egun bateko bazkaria (1978)

– *Len erran du badiela ollar, baskaltako, anitx majo...*

– Ollárta; eta guniá... nóla erráitan durán?³⁴, láta bát, bi... láta gísa, alùbia... eran blancas, de... xúri!, embotadas; eta e(r)sán nia: “ah!, bar diár

²⁹ *xelidák* aditzen dela dirudi.

³⁰ *erkítan zeía* da, noski; horra, hor ere, *r* eta *s*-ren arteko lehia.

³¹ *egòixtan zeíñá* horretan, lanaren 2. zati honen hasieran esan dudana esanagatik ere, ustez galdutzat emaniko *nokako* aditz laguntzaile bat dugu. Zuberoan, gure egunotan beretan kasu honetarako erabiltzen diren aldaera desberdinen artean, *zieña* da, behar bada, erarik arruntena.

³² *gátza égon* aditzen dela dirudi.

³³ Ikusgarria azken esaldi honetan –eta hau adibide bat besterik ez da– nolatan nahasten diren gaztelania eta euskara.

³⁴ Bitxi da *durán* hori, *nóla* aurretik duela.

izari bíar, lauré(n)s...-táko sólo”, badiár (...) baia ég-, egízári³⁵ niá... patáta, àparté, eta géro, nástekatu diá(r) gúzia, alubiák eta patatá! Eta guniá, sólo áurr(s)ak, yá bí... niëtöák eta gú biák, eta kazóla bát ándi ìzar diár, eta ollárra, eta sóbratu zía iguál alúbia nòla ollár; kònke égun, zér égin diar?, pues añádëtu diár... béta banák, alubiér, ¿ya me entiendes?...

– *Unas acelgas...*

– Unas acelgas a las alubias, y del pollo, que me había sobraö, ollárra sóbratu bitá, pues báskaria(k) ein diágun, e(g)únko; òrainó're badiár kór, morróiarentáko arrátsen, xítan dénian... ménditik. Zía ánitx ándi ollárra!, eta... ártu dién platér bát kolaxét, alúbiak eta á(t)za... eta géro íror razióne òllotí³⁶ eta érran diézt: tripa bát [barrez]... eta géro kafé zagóá...

– *Eta koñak amintto bat ere bai? baskariaren apaltako?*

– Bai![barrez], pues bai!, eta kafeá, artú dié(z)t...

Eguberriz (1978)

F.B.en senar Pedro Ederra jn.ren eskuhartzearekin (P.E)

– *Eta natibitatez zer egitan zen keben? erkitan zrena aurrak karrikara limosna txerka?*

– Bai, bai!, bai-bai; eta xöáitan zriá gúziak, è(t)se kuéta, èse guét-... ¿cómo diré?, èse kuéta, è(t)se gúzietra! Eta... èlkítan zía, la limosna (de) Navidad; Niño Jesúsen Návidad³⁷, eta mùndu gúziak emóitan guniá, edo arráultze, erráitan durána... kàrnabalétan eré, pues morroiér emóitan guniá, edo giánso edo txístor, ta xöáitan zía³⁸ asadór batekí, ta txístorak eta giánsöak edo lómöak edo kostillák, sártan zeíá asadórian, eramáitako karrikán; eta géro, pues xöáitan zriá... báriará, eta egítan zeíá xùrgin-áira, el xurgin-ári que llamábamos, la Nochebuena, cuando decían: xùrgin-áigaria.

– *Xurgin-aigaria?*

– Bai, kán egítan zeíá, pues mítilak; éz nexkátöak xöáitan zréla, e?, órai sí, órai bai, órai xöáitan tún nexkátöak eta mítila'kúziak, baia órdian éz, sólo mítilak.

– *Eta zer kantatan zein? “Ai Maria, gairon gairona”?*

– No, aquello era por partes, aquello era los chicos pequeños... pero eso era los mayores, los mozos, estos mozos mayores, bàñian ahora, que salgan la noche de Navidad, la limosnica del Niño Jesús, se les daba y después ellos disfrutaban, en el bar... pero lo de los chicos pequeños era... por parte: “Virgen Sagrada y Madre de Dios, no hay en mundo tal como Vos”...

– *Eta Orrek, orren gazte-tenpran, entzun dia uskaraz kantatan?, “Ai Maria, gairon gairona” edo korietarik bat? bai?*

– Bai!, ordían gántatun zía³⁹; gúzia banakié⁴⁰, bai, baia ói da ázetuk.

– *“Sortu da Jein ona, Natarabitate, Urterebrate”... (saiatzen natzaio oroitarazten)*

³⁵ *egin* eta *izari*-ren artean zalantzatan ibilia ote?

³⁶ *ollar* eta *ollo* nahasten du behin eta berriz.

³⁷ *lámida* aditzen dela dirudi.

³⁸ *xöáitan zriá* behar luke, antza, pluraleko hirugarrenaz ari zenez.

³⁹ *kántatan zía* behar luke, antza.

⁴⁰ *banakiá* da maizenik erabili ohi zuena.

– ...Árgizariá, Mírari andiá... no sé, ya se me ha olvidaö. Eta bueno, Nabitáte (sic)... eta géro, xöáitan gi(n)tiá... apezázn- [zuzenduz:] apézanián xöáitan gitiá eta emóitan zeíá⁴¹... bí zéntimo, edo láurtako bát, eta órdian zía ánitx; ápeza... eta ní órái xöáitan nún... è(t)se bátra... kán diár amandérra, ¿ya me has entendido?, allá tengo la madrina, amandérra que se decía, edo aita-dérra, otro, o tía bat, bè(z)te⁴² étsen, eta kárek, baziá gúzientáko, bapána béra-rentáko... ázkaziák, pues distinto; edo... gírlátx, edo ságar, edo... naránja órdea edo, edo... pues distinción, distingúía, cada una, tú porque ya eres de pariente, ya sabía, y nadie, de las otras nadie decía nada, de las demás, porque aquélla ya sabía que era, pues cada uno su pariente, la distingúía...

– *Izaban entzun nien, etse abratsetan, abratser, obroago emoitan zeila...*

– Öbroxáö, òbroxáö... koriétarik, gúziek, è(t)se abräxétan, báibai, distingúndan (sic) zeíya, bai; baguniá báí... bai, xöáitan ginziá, “ái!, zómat (...) emónen déin, abér”, turrónak edo mazapának, edo...

– *Eta gero, etsera xoan eta, zer egitan zein aigaltako?*

– Pues... áigaltakó?

– *Aigari ona eginen zen, e?*

– Óna, àigari óna, pues gúziek eta al gái-, gàiza gúziak éramaitan guniéna, eta zér dán(t)za!, eta dór⁴³, zér tósta ène semék!... Bèst-, lenáö bigunién étsäa... kár(s)⁴⁴, ande la... bar de Sacristán teníamos la casa antes nosotros, que la quitaron pa hacer la carretera... A la parte abajo, era nuestra casa.

– *¿En el bar de Sacristán?, ese bar no existe ahora, ¿verdad?*

– P.E: Ande has dejaö el coche, ahí teníamos nosotros la casa, junto al río.

– *¿Frente al bar Latsa?*

– Eso, Látsa; ahí teníamos nosotros la casa... y pa hacer la carretera, nos dieron esta; el Ayuntamiento hizo eso, compró, compró otra, después la hicieron toda nueva desde abajo, paredes y todo...

– P.E: Es que ahí, entre... nuestra casa y la de Latsa, salía, así, un cabezón de piedra, y no podía pasar... el coche pequeño justamente. Y venga a poner carteles, ¿pero los del pueblo eran los primeros que pasaban!, había pocos coches pero, coche que pasaba, ¿anda!, te llevaba... todo el tabique por delante.

– Eta balkonétra erkítan zreiá morróiak, eta tósta, eta kánta, ta ¡viva Navidad! eta... ta gàiin kártan pues, gáia... gúziek áigaltrá on, pero lenáö, baguniá láur égun, edo zomát?... bijíliatáko; ta bijíliá, pues... mùndu gúzia egítan zía pues besúgoa, eta géro... kastáña egósi, edo ságar, edo kúzie'kuétari(k). Ta kaféak eta kopák, báibai!, disfrútatan guniá, bai, lénaö e...

– *Eta ordian nolako aigari egitan zen, keben, etsetan?*

– Cada uno hacía su cena a su manera. Balìma-...zién txérri, pues igual, kostillák, edo lómoak, edo áigari(r)... ¿en buena armonía!, eta besúgöa, besúgöa báí... báibai, besúgöa.

– *Turron ere bai?*

⁴¹ zía logikoagoa ikusten da zeíá baino, apaiz bakar bati buruz ari izanez gero bederen.

⁴² beste eta berzeren arteko zerbait dirudi, F.B.ek bi era hauek erabiltzen zituen eta.

⁴³ kór izango ote da?

⁴⁴ kán behar duela dirudi.

– Eta, ah!, turrónak ere báí, ni aunque sea, ez málimazagón, ez bàlimazagón, gai kàrtakó, gúziek eróstan guniá... turr(s)ónak; kóri báí, bìzi gúzian, el día de Navidad siempre... eta kàrnabalétan etá, disfrútatan guniá, báskaria ón edo áigaria edo...



ADITZ-JOKO BATZUK

Jarraian F.B.ek erabili izaniko ahalera, agintera, subjuntibo eta aditz trinko zenbaiten lagin batzuk ekarriko ditut hona, amaitzear dugun XX. mendearen bigarren erdian bildu diren beste zenbaitekin batera. Horregatik, eta lan honen tamainari erreparaturik, lehenagoko denboretan bildu bestelako daturen bat –Hualde Mayo, Mendigatxa edota Azkue– ez dut salbuespenez baizik aipatuko.

Ahalera-adizkiak

Iragankorra - Honako galdera-sorta ttikia 1976. urtekoa da, ahalera iragankor eta iragangaitzeko kasuetan F.B.ek zernolako erabilera egiten zuen ikusteko.

– *¿Y cómo diría “no puedo comer”?*

– Eztokiár xán déus ere, eztokiár xan; y a un mayor, eztokiáz, [zuzenduz] eztokéz; al mayor, si es mayor que yo, digo: eztokér xán déus ere.

– *¿Y si es uno como usted?*

– Eztokéár; ya, es de tú; eztokiár.

– *¿Y a uno más pequeño?*

– Igual: eztokiár... ¡ah!, si es una un poco mayor que yo, eztokiézt, eztokiézt!, que ya es un poco mayor; eztokiáz es, ya, a uno como de “tú”, que le hablas, y a un pequeño y así, pero a uno que sea mayor, eztokiézt; y a uno muy mayor, eztokiár, [zuzendu nahiz:] eztokiézt!, eztokiézt...⁴⁵.

– *¿Y “no puedo andar”?*

– Eztokéár ébil, eztokéál (sic) ébil...

– *“Ez naiteke ebil” edo... ez?*

– No puedo andar, eztokiár ébil, ez... eztokiáz ébil, eztokiár... ébil, zánköak e'mó(b)itan déin ni.

– *Eta “ez naiteke ebil”, ez?*

– No, no, no... eztokiézt ébil, que no puedo andar; eztokiézt ébil, txíki sólo.

– *Eta “puedo andar”?*

– Órai... ebíltan nun(rs)⁴⁶.

– *“Ebil naiteke”, ez?*

– No; orái ebíltan nún.

– *Eso es “ando”...*

– Ebíltan yáz? bai; orái egóitan, [zuzenduz:] ebíltan nun; ebíltán nun(rs)!...

⁴⁵ Hiru lerro goraxeago esanikoa bera ageri zaigu hor, errepikaturik, F.B. zertxobait nahasi zen seinale. Era egokiak, itxuraz, honakoak dira: *eztokér* edo *eztokez* (duketz); *eztokiar* edo *eztokiaz* (yiket), eta *eztokiézt* edo *eztokiez* (zuket).

⁴⁶ Bitxi da hori, ezpairik gabe, baina horrelako zerbait aditzen da, agian *nun(s)*.

F.B.i bildu gainerako hizketaldietan ere aurki daiteke, han-hemenka, kasuren bat edo beste. Hona zenbait adibide:

- *baia ník eztókiár entelégatu ári*
- *tién títiak ánitx ándi eta eztokén ár*
- *eta eztokiá(g)un arrápatu karpintéro bat*
- *eztokéin egítan gáztarik*

Bai-eta, ustez iragangaitzeko era hauetan, iragankor gisa emanik:

- *al báldin badòkegú, áltxa (altxatu = gazt. “esconder[nos]”)*
- *èz zokeiá xátxi fiestétra (gazt. “no podían bajar a las fiestas”)*

Iragangaitza - F.B.ek, baina, iragangaitza erabili zuen inoiz edo behin, *e'bizén erkítan! e'gitekén érkin!* gisako esaldian bezala, adibidez, gazt. “pues no se salía, no podíamos salir” dirudiena.

Uztarrozen, gainera, honako hau bildu zen lehenagoko urtetan:

- *orai ezditaké érran kóri* (Balbina Ederra, 1982)

Eta Izaban ere antzeko zenbait esaldi egoki aurkitu ahal izan dugu:

- *eznéiteken igan áltepa góra* (Simona Anaut, 1961)
- *eztíteken ígar bórtá kóntarik* (Pastora Anaut, Simonaren ahizpa, id.)
- *errán déitekela - [ez] títeke òbro* (Antonia Anaut, aurreko bien lehengusina, 1975)

Agintera-adizkiak

Iragankorra - Hona F.B.ek emaniko adibide batzuk:

- *xán zazu!* - *útzazu!*
- *xáte zán sökáltia!* - *apálta zán sillák!* (aditzak pluralean behar luke, antza)
- *arrápa zán níri kapák!* (id.; hau era tripertsonala dugu)

Uztarrozen berean badugu kasu gehiagorik:

- *berriz egin zazu* (Pilar Garde, 1953)
- *zéra zazéi bortá* (Ricarda Pérez, 1959)
- *mítíl érkin zak eltxáno* (Doroteo de Miguel, 1980)
- *érman zázu étsera* (B. Ederra, 1982)

Eta gauza bera Izaban ere:

- *xán zazu!* - *edan zák, edan tzák - izar béza* (Eugenia Baraze, 1953)
- *sar zazéi de púnta* (P. Anaut, id.)
- *kánta zak - kánta beza* (A. Anaut, 1975)

Badugu orobat era tripertsonaleko adizki bat, Izaban bildurik:

- *erran ziox xin deila kona* (artzai batek emana, 1959)

Iragangaitza - Hona F.B.ek emaniko batzuk:

- *ázka adí!* - *egón ádi óian - xöán adi méndiara!*
- *xí'ztei koná!* - *èztéi xöán korá!*
- *sár bitei!*

Uztarrozen berean ere honakoak bildu dira:

- *áltxazte, áltxaztei - xín bedi láguntra* (R. Pérez, 1959)

Eta Izaban honako hauek:

- *beléiz adi* (E. Baraze, 1953)
- *xín bedí* (P. Anaut, 1959)

Aditz subjuntiboa

Iragankorra - F.B.i bildu materialetan era honetako adibide askorik ez badugu ere, honako pare hau eskain dezakegu:

– *baia llábur-llábur ízan zála*

– *èkun zagún òbro gázta*

Ricarda Pérez uztarroztarrarenak dira honako hauek (1961):

– *pésa tzurála ñáurek - pésa tzála sémeak - pésa tzugúla giáurek*

– *érran tzeila aiték*

Eta jarraiko hauek, berriz, Izaban ziren bildu:

– *gálte(g)in dezála - ene pártez konta tzála árek* (E. Baraze, 1953)

– *érran nezala eta érran nezála...* (A. Anaut, 1975)

E. Barazek, gainera, indikatiboko era bat *–du–* eman zuen subjuntibogisa (1953):

– *Jangéikuak nai diéla*

Iragangaitza - F.B.ek adibide bakan batzuk utzi dizkigu; hona zenbait:

– *egón déila kán - eztéila xín... múndu kóntra*

– *eta erétsirén léilá... záku banák* (gazt. “y que [se] bajara algunos sacos” edo, izatera datorrena)

– *idór zéin... óbeki*

– *èzne gúzia xóán zrein* (*zein* behar luke, antza)

– *óltu zteía... gízon koriék, éne é(t)seara xin zréila*

Uztarrozekoak dira, era berean, jarraiko hauek ere:

– *buelta yain [artio] - buelta ledila* (Pilar Garde, 1953)

– *xuan deila - xuan zeila* (Carmen Dronda, id.)

– *xuan tiála beren etsétra* (R. Pérez, 1961)

– *ojalá ílen déila!* (B. Ederra, 1982)

Eta Izaban ere badugu zenbait adibide:

– *bízi néila, eta oriek ere báí* (E. Baraze, 1953)

– *kek erran deiku juan gindeala* (P. Anaut, 1959)

– *íl tiála bérak, gáztiak!* (A. Anaut, 1975)

Badirudi, baina, subjuntibo-kasu hauetako batzuk, nolatan edota zein testuingurutan erabiliak izan diren arau, agintera-kutsu nabarmena eduki dezaketela.

Aditz trinkoak

F.B.en ahotiko materialetan bi aditz trinko baizik ez da: *xakin* eta *egon*. Hona zenbait elkarrizketatik ateratako adibide batzuk, zein bere testuinguruaren arabera:

Iragankorra (xakin)

– orainaldian: *eztakiz, badakiar/leztakiar, badakiezt/leztakier/leztakied; badakizu; badakiela/badakia?/leztakia?; badakigu; badakeila/ébitakei.*

– iraganaldian: *banakial/banakie, banekizun/banakiezun/é'nakiezun; bazakien/bizakin, zakial/bazakial/é'zakia; bazakeila.*

Iragangaitza (egon)

– orainaldian: *banago/nagola, nion, niozu; zaude; yago; badago/bidago/bitago/é'bitago, dion, diozu; gaude, gition, gaudezu; zaudei; daude/bidaude, dauden, daudezu.*

– iraganaldian: *binindagon; bazagon/bizagon/zagonian, zagöa/é'zagöa; gindaundia; zauden/zaurela, zaudia.*

Bi aditz trinko hauen erabilera, aipatu azken mendean, guztiz arrunta izan da Uztarrozen eta Izaban, euskara erabilia izan den neurri ezin apalagoan, jakina.

Iragangaitza (xoan)

Dirudienez, baina, adizki honen erabilera trinkoa ezaguna izan da ares-tian aipatu denboran, F.B.ek erabiltzen ez bazuen ere. Hona Uztarrozen bildu kasuren batzuk:

– *nora doa? - nóra zoatzá?* (R. Pérez, 1959)

– *bagoátzu ántzina* (B. Ederria, 1982)

Zenbait izabarrek emanikorik ere bada:

– *gaur banuá ni étxerà* (E. Baraze, 1953)

– *banoá elizára* (P. Anaut, 1959)

Zuberoatik sartu bide zen Gabon-kantu batean adi daiteke halaber, era horretako aditz bat, agintera moduan bada ere:

– *Guazen ainguriéki, arkanxéliéki...*

Lehenago aipatu Azkueren *Particularidades del dialecto roncalés* deritzanaren III. kapituluko (“Restos del flexionario”) I. zatia irakurtzea aski da, alabaina, lehenagoko denboretan hauek baino aditz trinko gehiago jokatu direnaz ohartzeko. Guztiarekin ere, erronkariara mendebaldetik mugatzen duen zaraitzuerak badu, Espartza aldean bederen, *xakin* eta *egon* horiez gainera, *daukit, daukizu, dauki...* gisako emaitzak sorrerazten dituen *iduki* bat⁴⁷, nahiz aditz laguntzailearekin, askotan, *izan* ere aditzen den: *izan dut*.

Aldiz, iparraldeko auzo-mintzamoldeak, zubererak, *jakin* aditza bai, era trinkoan erabiltzen du, baina *egon ez*; hots, *hor daude*, adibidez, ezagutzen edo ulertzen dute zuberotarrek oro har, baina erabili, *hor dira* da erabili ohi dutena. *Joan* aditzaren era trinkoak, bestalde, gutxi samar bada ere, zenbait lekutan erabiltzen dira. Zuberoan, alabaina, eta ez hain aspaldi, bestelako aditz trinkoak erabiliak izan dira, garai bateko era guztietako literatura arakatu-tuz gero –dotrinak, poesiak, *khantore*-sortak, pastoralak...– nekerik batere gabe aurki daitezkeenak, nahiz gure egunotan ez diren, ohiki, hiztunen hizketaldi arruntetan aditzen.



INOIZKO ADITZ-HONDAR BATZUK

Azkueren *Particularidades...* horrexen aipatu kapituluko II. zatian, zera irakur daiteke: “Tienen, sí, algunos curiosos imperativos que no se oyen en otros dialectos, tales como: 1º *txek, txen, txezu* y *txezei* mira tú, varón y hembra, mirad vos y vosotros. 2º *Nazierde* ven, que como su equivalente bizkaino *erdu*, no se oye fuera del imperativo de segunda persona. 3º *Ortzu*

⁴⁷ *iduki* horrez gainera, ustez esanahi bereko *edoki, etxoki* eta *itxiki* bezalako partizipioak ageri zaizkit Zaraitzuko ibarrean bildu materialetan.

vete (se entiende a buscarlo). *Ortzei zauzi egitra turrunpero batarik itxasoara* idos a saltar por un despeñadero al mar (Mat.VIII-32). Es muy posible que ese *ortzu* sea contracción de *or duzu* ahí lo tenéis. (...) 4º En el octavo de los cuentecitos que figuran al final del estudio [akats bat da hor, ez baita zortzi-garrena, hirugarrena baizik] se lee tres veces el curioso imperativo *ein*, mujer. Tal vez sea el mismo verbo *egin* en el sentido de “dar”. (...) En subdialecto salacenco (y creo haber recogido también del roncalés) existen idénticas flexiones, pero con el núcleo *e*. *Edak ostorri bat* dame, hombre, una hoja; *edan* dámela tú, mujer; *edaxu* dámela vos. (...) 5º Figuran en el diccionario, como de Bidangoz, las flexiones imperativas *onaik* ven tú, varón y *onain* ven tú, mujer. Y se añadió allí ¿cuál será la radical? Es muy posible que sea el verbo *yaugin*, del cual, por ciertas metamorfosis que se ven mejor que se razonan, sacan en Uztarroz *nagi* ven, y en BN-s *enaugi* con idéntica significación. Añadiré aquí que el sinónimo de nuestro *etorri*, el verbo *yin* que en BN pronuncian como está escrito, en S *dxin* y en BN-s y R *xin*, este curioso verbo parece contracción del arriba citado *yaugin*. (...)

Hots, azken mende erdi honetan bildu materialetan baditugu, oraindik ere, arestian aipatu adizki batzuk, nahiz Azkuek aurkeztu adibideetan lehena aurkitu ahal izateko –*txek*, *txen*, *txezu* eta *txezei* gisako agintera-adizkiak, alegia–, iragan mendeko Hualde Mayo bidankoztarrarenganaino jo behar izan dugun, haren ondorengoek, Mendigatxa barne, ez baitituzte halakoak erabili. Ikus ditzagun, bada, adibide batzuk:

1ª. Hualde Mayok bere herriko euskarara itzuli zuen San Mateoren arabera Ebanjeliotik hartu dugu jarraiko adibide pareak:

– *Txezu, zore ama eta zore anaxak daudezu kor* (XII.47)

– *Txezei bada nola biar tzein errezatu* (VI.9)

Idazki horietan ez da, alabaina, hikako kasurik agertzen.

2ª. *Nazierde* eman zuen behin F.B.ek eta baita, orobat, *nazierdei* ere (zuek), baina azken hau nik galdeginik bakarrik.

3ª. *Ortzu* horren haritik badugu ere zenbait kasu. F.B.ek emanikoak dira honako biak:

– *órden! xöán adi méndiara - órden, erági zán porrónaréki... utúrriara!*

Uztarrozen berean jaso ziren, halaber, honako biak:

– *órden fite kèbenti!* (D. de Miguel, 1980)

– *órden kébentik!* (B. Ederra, 1982)

Izaban ere halatsu:

– *órtzu mendiarát* (“vete hacia (?) el monte”, erantsi zuen K. Izagirrek) (S. Anaut, 1961)

– *órtzu karatágo, bestelá...* (“vete más allá, si no...” erantsi zuen kasu honetan ere K. Izagirrek) (P. Anaut, id.)

Eta baita, orobat, Bidankozen ere:

– *ortzu edo fán zte* (Hualde Mayo, VIII.13)

– *eta ark erran zabein: ortzei* (id., VIII.32)

– *ordek polpara - orden gaztiarniara* (Mendigatxa, 32. gutuna, 1912)

4ª. *Edak/edan* horiek direla-eta, honako adibidea dugu Uztarrozen:

– *ídan eta págaten diar* (B. Ederra, 1982)

Izaban, berriz, honako hauek:

– *edéin lu-múkulu kóri* (“dame ese copo (?) de lino”; oharra K. Izagirrerena da) (P. Anaut, 1959)

– *bida garrotekálđi bat* (A. Anaut, 1975)

Eta Bidankozen, azkenik, jarraiko hauek:

– *edeizu, edeik, edein - bida* (Mendigatxa, 23. gutuna, 1905)

5^a. *Nagi* hori erabilia izan da Uztarrozen eta Izaban azken mementu arte –F.B.ek behin, gure haurren bati, *nági, nági, nági...* esan zion era errepikatuan–, eta *enaugi* horrek ere bizirik iraun du Zaraitzuko euskaldun gero eta bakanagoen artean.

Hualde Mayo bidankoztarrak, aldiz, *onai* erabili zuen behin esanahi horrexekin, *onai, edo xin adi* idatzi baitzuen (VIII.9). Azkuek, dena den, 5. puntu honekiko bere burutazioen bukaera gisa, zera erantsi zuen: “Pudiera a alguien ocurrírsele poner en tela de juicio la afirmación hecha al principio, de que las flexiones roncalesas *onaik* y *onain*, provistas de los elementos agentes *k* y *n*, vengan de un verbo pasivo como es *yaugin*. A lo cual diré que ese núcleo *onai*, contracción probable de *enaugi*, está fosilizado.”

Zaraitzun, mendearen azken laurden honetan, *enaugi/naugi* eta *enagui/nagui* aldaerak aditu ditut, hala nola, erro horretatik ateratako beste era batzuk:

– *náugi kóna!* (hikako tratamendua erabiliz, adibidez)

– *xáudi kóna!* (xukako id. id. id.)

– *tzáuri kóna!* (zukako id. id. id.)

– *zek, tzáudie kóna!*

(Azken adibide hauek Eaurtan, duela lauzpabost urte, Salvador Karrika jaunari bildu nizkion)

Nafarroa Behereko eta Zuberoako edozein etxeren ataritarara heldurik ere, horrela esaten zaio bisitariari, barru-aldera sartzeko gomit eginez: *txauri!, tzauri!*



EUSKALKI HONETAKO HITZ BATZUEN ESANAHIA
(INGURUKO ERDARETATIKO BESTE ZENBAITEZ GEHITUA)

agian	behar bada, menturaz. <i>Eznía et’óro agian eróritan zía.</i> Barnealdeko euskalkiek duten adiera bera du, beraz.
aigari	afari (Zub. aihari, Zar. abari). <i>Báskaria ón edo áigaria edo...</i>
akaitu	akitu, unatu, nekatu. <i>Xá akáitan zú kében égotiá.</i>
akalero	zamalkatu. <i>Akaléro ástöan, “a caballo en el burro”.</i> Mariano Mendigatxa bidankoztarrak, bere 5. gutunean, <i>akaballozko</i> ematen du “si monta en mular o asnal” kasurako.
alte	alde, albo, saihets. <i>Gúziak... álte batra.</i>
altso	Azkue: 2 ^o (S-gar) rebaño, troupeau. Esanahiaren hedaduraz, baina, “multzo”, “sorta” edo antzeko zerbait izan liteke, behar bada: <i>La tea (...) altsúaren egítan (...) súaren zébatako.</i> Ez da, haatik, batere segurua.
amintto bat	pixka bat, pittin bat, apurtxu bat. <i>Amíntto bateki, gúziak xànen diaguzú óbeki.</i>
anaxe	anaia. <i>Anáxe kóri (...) zagöá amáren tripàn.</i>
anitx	1) aunitz, asko, ugari. <i>Morroyék irabáztan zéi ánitx.</i> - 2) oso, txit, biziki. <i>Ziá ánitx ándi ollárra!</i>
apaltu	beheratu, behehitu. <i>Apálta zán sillák!</i> (Ikus <i>eraitsi</i>)

arren	alta, bada. <i>Árren órdian xöänen zréi órai San Sèbastiánara.</i>
arrikaldikatu	Azkue: (R-uzt), apedrear : jeter des pierres, lapider. <i>Gúzia aurrék, arrikáldiká, áutse déin krístal gúziak.</i>
asador	gerren, burduntzi. <i>Ta txístorrak eta giánsöak (...) sártan zeidá asadórían.</i>
astra	osterera, atzera, Zub. hartzara. F.B.ek, alabaina, <i>berriz hitza erantsi ohi zion beti: Kárríka bárna ástra bérriz ta...</i>
atajero	ardi-saldo edo artalde txiki baten jabea. <i>Eta ánitx atajéro biza-gón... F.B.en alaba Maria Ederrak dioenez, “mayoral” gisa ibili izaniko batzuk, “atajero” izan dira aurrenik.</i>
atze	atzealde, gibel. <i>Pues ník, én átzian.</i>
atziri	atzera, gibelera. <i>Ta gúzia atzíríká, bétik.</i>
autse, autsa	hautsi, puskatu. <i>Aurrék, arrikáldiká, áutse déin krístal gúziak / Eta órai autsá tun... léxo bát.</i>
axen	<i>axentako</i> izan liteke, hots, “hatsentzako” edo. Azkue: <i>hats - 7° (AB-b-est-lar, BNs, R, S), vaho : haleine, vapeur. Pues... axén anitx ón.</i>
azetu, atzetu	atzendu, ahantzi, ahaztu. <i>Baia ói da ázetuk.</i>
azi	sendi, senitarte. <i>Ázi gúzia, familia gúzia, amíntto batekí, gúziak xànen diaguzú óbeki.</i>
azkatu	1) jaiki, jagi. <i>Ázka adí!, órdëa dún!</i> Batzutan, baina, <i>xági</i> erabiltzen zuen, haren lehengusu Doroteo de Miguel zenak erabili ohi zuen bezala. - 2) altxatu, goititu zerbait. <i>Erórtan bálin badá, pues ázkatu bar diagún.</i>
azkazi	ahaide, senide. <i>Eta kárek, baziá gúzientáko, bapána béra-rentáko... ázkaziák.</i>
baiarte	anda, angela. <i>Edo mítilak edo neskátöak [eramaitan zeia] Áma Berjiná ónbro(o)ka, baiárte batetán.</i> Azkuek <i>baiarta</i> (BN, Sal, R) eta <i>baiarte</i> (BN-s, R, S) dakartza, antzeko adierekin, eta Iribarrenek ere <i>bayarte, ballarte</i> eta <i>baluarte</i> hitzak agertarazten ditu, hirurak garraiorako erabiltzen omen diren “parihuela” edota “angarillas” direla argituz.
banak	batzuk, zenbait. <i>Eta izártan zeidá... árrí banak edo zerbái(t).</i>
bapana	norbera, bakoitz. <i>Eta kárek, baziá gúzientáko, bapána béra-rentáko... ázkaziák.</i>
bar, biár	behar. <i>Erórtan bálin badá, pues azkátu bar diagún.</i>
baratu	geratu, gelditu. <i>Báratán bálin bazá (sic) azúkarra gísa...</i>
barna	zehar, gaindi. <i>Eta... buéltatan zëá, kárríka barná.</i>
bede	ezkaratze, atari. <i>Abajo, bédëa / Lenáo ez zagöá... sukálte káur, mäske... bédëa.</i>
berz, bertz	pertz, tupin, galdara. <i>Zenbrá géro egítan zeidá bérz batan.</i>
berze	beste. <i>Ta berzék, e'zeidá nai xöan náí.</i> F.B.ek <i>berze</i> eta <i>beste</i> , biak zerabiltzan. Uztarroze herria, kontu honetan, nahasia ageri zaigu, hots, Izaban <i>beste</i> erabiltzen bazen ere, Zaraitzuko era <i>berze</i> baita.
betik	beti. <i>È(t)se kóntan bétik igári dún...</i> Batzutan, halere, <i>beti</i> adi daiteke.
beur	behor. <i>Gúk ekún diáguzu... béurr et'oro, sótoetán.</i>
beztitu	soinekoak jantzi. <i>Eta... àurrák, neskàxëák, bèztitú(k)...</i> Azkuek <i>besterik</i> dio: (BNc, Gc, Lc, R, Sc), amortajar : ense-

	velir, envelopper un mort dans un suaire. Zehaztapen honi, baina, galdera-ikur bikoitza (?) erantsi zion.
biár, bar	behar. <i>Eta méndiala xöán biár!</i>
bíar	bihar. <i>Bíar xöànen zú.</i>
biartu	behartu, derrigortu. <i>Ní binindagón... kalaxét, ònen gísa, pues biártu... ikástra.</i>
bit	bait. <i>Bitagó ánix buélta bestalá kárreterán.</i>
egari	Azkue: (BN-s, R, S), cargar, sostener, soportar, sufrir : charger, soutenir, endurer, souffrir. <i>Kónek egári dien báí, mandöéki... akarréatan!</i>
egotxi	jaurtiki, bota. <i>Ta egóixtan zeidá gaztá kóna.</i>
eguartu	ohartu, konturatu. <i>Eguártan nézu gúzietan.</i> (Ikus <i>guartu</i>)
eguatxa	ibai. <i>Ah! gáztiak xöáitan gitziá eguatxára</i>
egun	egu, egun (egungo, gaurko eguna). <i>Pues báskaria ein diágun, e(g)úngo.</i>
ein	ehun. <i>Pues báneki zeidá... éin [ardi].</i>
ekun	eduki, ukan, Zub. ükhen. <i>Gúk ekún diáguzu... béurr et'oro, sótoetan.</i>
ekuzi	1) garbitu (gast. "lavar", fr. "laver"). <i>Eguatxára... zankuén ekúztra!</i> - 2) garbitu (gast. "fregar", fr. "écurer"). <i>Öntziák ekúzi tuná?</i>
elar	laratz. Iribarren: (<i>elar</i> : lar o llar) cadena gruesa, rematada en un gancho que, pendiente de una viga cruzada en lo interior de la chimenea, sirve para colgar el caldero sobre el hogar. [Uztárroz, Roncal, Vidángoz, Ezcárogo, Izalzu, Navascués]. <i>Que había unas calderas así, y un elár...</i>
elerran	hitz egin, mintzatu, berba egin. <i>Ek, elerráitan bizéi(n), elerráitan, eta...</i>
eltu	Azkue: 1º (R), alcanzar, atteindre. <i>Éltan bàlèn bagunién... bórtá bat ídikirik...</i> - Azkue: 2º (R), heltü (Sc), llegar, arriver. [<i>Almadía</i>] <i>éltan zénian púnta bátra...</i> (Ez du, ikusten denez, lapurtera/behe-nafarreraren ez goi-nafarreraren (iparralde zein hegoaldeko) lur-eremurik gehienetako <i>etorri</i> -ren adiera trinkoa: (<i>h</i>)eldu da = dator.
emon	1) eman. <i>Eta mündu gúziak emóitan guniá.</i> - 2) omen. <i>Eta erráitan èmon niézun: amá, tzíntzak!</i>
entelegatu	ulertu, aditu, konprenitu. <i>Xa? entelégatan?</i>
erager egin	igerikatu, igeri egin, uger egin? <i>Báñatako, ta... egítan dein ánitx, eragérr eta...</i>
eragu, eragi	ekarri. <i>Nóla erágutan drá?, pues... abréki, manduéki ta astuéki / Pues kóri... orái erá(g)itan déin...</i>
eraitsi	beheratu, beheitu. <i>Eta eráixtan zidá... pues kopák eta... pásták.</i>
erden	ediren, kausitu, aurkitu, idoro. <i>Eta xöán dún abér erdéitan diéneez... zòmait tronkóixko.</i> Hitzak pairatu laburbilketa gora-behera, Zuberoako <i>ediren</i> ezagunaren metatesi izatea kolokan jar lezake, agian, Leizarraga beskoiztarrak <i>eriden</i> zerabilela kontuan hartzeak.
erkin	1) irten. <i>Eta balkonétra erkítan zreiá morróiak.</i> - 2) atera (zerbait). <i>Géro, erkítan zeidá kolaxét e.</i>

erraditu	Azkue: <i>erradatu</i> - 2º (R, Sc), alisar : lisser, polir. F.B.ek, baina, <i>erraditu</i> erabili zuen: <i>Ta kúra gén, ta erráditan.</i>
espada	gaztanezpata. <i>Eta géro egítan zeia, espáda bateki, kolaxét, krútxea.</i>
etse	etxe, etze. <i>Egúrra égin eta étserà.</i> Batzutan <i>ese</i> aditzen da.
ezne	esne. <i>Eta kán, bértzan... ezniá et'óro agían eróritan zia.</i>
gai	gau. <i>Gáia Izában eta éguna kében.</i>
gaiza	gauza. <i>Izárrí dá gúzia kain... kàin kárió gáiza gúzia'kúziak...</i>
garitu	Azkue: (BN, L), adelgazarse, s'amincir. <i>Gáritan zia... zenbrá.</i>
gente	jende, populazio. <i>Órdian baziá ánix génte.</i>
gentu	kendu. <i>Gúziek géntu'gu... animália.</i>
gianso	urdaí, xingar. <i>Pues morroiér emóitan guniá, edo giánso edo...</i>
gineran	gainerakoan, gainontzekoan. <i>Baia bèste ginerán zé?</i>
Gore Jeina	Gure Jauna, Jaungoikoa. <i>Kòrpus egúnian bai (...)</i> <i>Gòre Jéina-rekí et'óro.</i>
goxanik	(goizean) goizik. <i>Amíntto kuék egítan t(i)águn, súaren egóitakó góxanik.</i>
guartu	ohartu, konturatu. <i>Gúzietaz guártan nezù.</i>
guzu	guzti, guzi. <i>Orái bidagó ánitx karreteril, gúzutik...</i>
idortu	lehortu, gogortu. <i>Idórtan zia kor, zenbrá.</i>
igare	Azkue: (BN-s) pasar, traspasar : passer, traverser. <i>Puntá, igare góra!</i> Zalantzazkoa da, halere. (Ikus <i>igari</i>)
igari	1) iragan, igaro. <i>Azkén égunián igártan zia rónnda gúzia... - 2)</i> iragan, igaro (zerbait). <i>Pues írur ilabeté, nolanái igártan tiágun, kében.</i>
irago	oihu, deiar, garrasi. Azkuek dakarren <i>heia gora</i> (BN, L), edo <i>ehia gora</i> (S), hitzaren metatesia-edo dirudi, adieran zertxobait urrundurik ere: suspiro, gemido, quejido : soupir, gémissement, plainte. <i>Abuelák irágo égin: ázka adí! órdeá dún!</i> Mendigatxa bidangoztarrak ere horrela zerabilen (6. gut.): <i>"...kalako gisan izan zen ankarra, iragoak egiten ztein, karríkan egon balidra gisa"</i> .
iror, irur	hiru. <i>Eta géro íror razióne òlloí / Pues írur ilabeté, nolanái igártan tiágun, kében.</i>
i(n)zagur	intxaur, eltzaur. <i>I(n)zagúr... nai diéna (...)</i> <i>nai bàlin bazéi eré izagúr, i(n)zagúr.</i>
izaguntu	ezagutu. <i>Baia... izagúntan diéz.</i>
izari, izarri	ezarri, ipini, paratu. <i>Ah!, bar diár izari bíar... / Baia órai xá, izárrí dá gúzia...</i>
jalma	Iribarren: Enjalma, jaez o baste de las caballerías. (Aóiz, Añorbe, Tierra Estella). En otras localidades, <i>chalma, shalma</i> y <i>zalma</i> . <i>Èta béstia... jálma batán lótan.</i> Azkuek <i>xalma</i> dakar, Mendigatxa bidankoztarrak zerabilenarekin bat.
kario	garesti. <i>Baia órai xá, izárrí dá gúzia kain... kàin kárió.</i>
karríka	kale, inda. <i>Lenáö, xóáitan zia karríká góra kòrtik eré.</i>
kaxal	gaztanazal (zurezko uztaia). <i>Zaudiá káxal banak...</i>
krutxe	gurutze. <i>Egítan zeia, espáda bateki, kolaxét, krútxea.</i>
Latza	Uztarrozetik Itzaltzura bitarteko mendatea, Zaraitzuko Ibarrarekin muga egiten duena. <i>Pues írur, bí... óren... Látziara.</i>

laur	lau. <i>Sólo laur mándo edo... édo zázpi mándo.</i>
laurtako	Azkue: (R-uzt), Var. de > <i>lauko</i> : 1º (Bc), cuarto, moneda de cuatro maravedises : cuarto, petite monnaie de quatre maravedís. <i>Apézanián xöáitan gitiá eta emóitan zeidá... bí zéntimo, edo láurtako bát.</i>
ler	pinu. <i>Lérra égotx eta... egúrra égin.</i> Zaraitzun eta Aezkoan ere bai, horrela.
lexo	leiho. <i>Eta órai autsá tun... léxo bát.</i>
lili	lore. <i>Izár sopéra batán, liliák, eta...</i>
lotu	1) lo egin. <i>Èta béstia... jálma batán lótan</i> - 2) itzali, itzungi, amatatu. <i>Lótu dúr súa.</i>
mallo-malloa	emaro-emaro, poliki-poliki, astiro-astiro. F.B.ek artikulua erantsita eman ohi zuen beti: <i>Eta géro bíltan zeidá gúzia kolaxé(t), montóia, mállo-málloa, mállo-málloá...</i>
matoi	Azkue: (G-bet, R) 1º leche cuajada para hacer queso : caillé, lait caillé servant à faire le fromage. <i>Bíltan zeidá màtoi gúzia.</i>
mazte	ezkondu zein ezkondu gabeko emakume. <i>Errán diez mázteari.</i>
miratu	behatu, so egin. <i>Pues [gaztari] buélta émon, eta míratan.</i>
mitil	mutil, Zub. mithil. <i>Mítílak sártan z(r)idá ètse... gúzietán.</i>
mobitu	mugitu, higitu, Zub. mobitü. <i>Eta ezín móbi óitík ázkatakò.</i>
morroi	mutiko, mutilkoxkor. <i>Órainó're badiár kór, morróiarentáko arrátsen.</i>
nastekatu	nahasi. <i>Eta géro násteka gúzia... násteka.</i>
neskatil	neska gazte. <i>Kében égin déin kuék, puh!, neskátíl, tenporáda kontan...</i> (Ikus <i>nexkato</i>)
neskato	ezkondu gabeko emakume. <i>Eztakiár, zrénez bordáltu(k) ala zrénez neskáto.</i>
neskaxi	neska ttikia. <i>Eta... àurr(s)ák, neskàxëák, bèztitú(k)...</i>
nexkato	neska gazte. <i>Órai xöáitan tún nexkátöak eta mítilákúziak.</i>
ñotto	oso ttiki, lar txiker, arront ttar. <i>Àma Berjina ñotto bateki...</i> Kasu honetan -tto xumegarriak balio afektiboa izan lezake, ez baita erraz ikusten prozesio batean eramaten den irudi bat hain ttikia izatea.
obro	gehiago, areago, Zub. haboro. <i>Eta zórtzi egúnetán irabáztan déin óbeki, óbro oráino're.</i>
oi	ohe, goatze. <i>Eta ezín móbi óitík ázkatakò.</i>
ondo	ondoren, (eta) gero. <i>Baia emán ondó... buélta.</i> B. Ederrak ere (FLV 40) horrela: <i>kóbes óndo</i> , “después de confesar”, eta are Izabako E. Barazek ere (RSVAP 1953): “ <i>Ta geró, ereix óndo, egór(t), egordóndo súa ixik, súa égin óndo ésnia izar áskaltakò...</i> ”.
onki	ongi, ondo, ontsa, Zub. hunki. <i>Eta... prétatan zeidá gúzia, ónki-ónki-ónki...</i>
orden	joan adi. <i>Órden! xöán adi méndiara.</i>
orropilo	korapilo, Zub. orapilo. <i>Egítan zeidá kében... orropilo bát, kuérda bateki, eta...</i>
parrapatu	eho, zehatu (F.B.ek adierazi bezala). <i>Parrapátan zeidá (g)átza.</i>
plazta ?	plaza, enparantza. <i>Txokòlatadá, plaztán.</i> Ezkerraldera idatzi dudan <i>plazta</i> hori ez zait guztiz segurua iruditzen, “en la plaza” esateko <i>plaztán</i> erabiltzen bazen ere.

rafe	teilatu-hegal, teilatu-ertz. <i>Eta ráfëak... bar tiágun ízari, gúziak.</i>
sabai	mandio, ganbara. <i>Gotëra bát sártan dún... sabáian.</i>
solo	1) bakarrik (izenordea). <i>Nóla bar zién béra sólo buéltatu?</i> - 2) bakarrik, soilik (aditz-laguna). <i>È'bitagó maske sólo... karpintéro bát.</i>
soto	Azkue: 2º (AN-goiz, R-uzt) , corral, estable : cour, étable. <i>Gúk ekún diáguzu... béurr et'oro, sótoetan.</i>
tenpra	1) eguraldi. <i>Tënpra gáixto egitan orài</i> (D. de Miguel, FLV 34) - 2) denbora. <i>Kanbéste ténprarendáko.</i> - 3) aspaldi edo, gaztaroan edo. <i>Ène tenprán eta alabén eta óro...</i>
tosta	jolas, olgeta. <i>Zér tósta ène semék!</i>
trabajatu	lan egin. <i>Eta kán trabájatra, trabájatra ástrü bérriz. Lan hitza, alabaina, ezagutu ez-ezik erabili ere egiten zuen: <i>Eta kán, àstèlénian, lániaara; lániaará es, pues "al trabajo".</i></i>
tripa	sabel. <i>Bát ástöan.. eta béstëa tripán...</i>
tronkoixko	enbor edo tantai ttiki. <i>Eta xöán dún abér erdëitan diénez... zömait tronkóixko, egítako.</i>
txaitsi	jaitzi, daitzi. <i>Eta èn'amá, txáistan eré aitáreki txáisgian.</i>
txaisgi	jaizteko edo daizteko hesia. <i>Eta èn'amá, txáistan eré aitáreki txáisgian, también muyendo en el txáisgi.</i> Baliteke ere txaisgu izatea. Aragoe aldetik sartu "muidera" hitza da, bestalde, gaurregun, ohiki erabiltzen dena.
txaramilagain	kebide-estalki, tximini estalki. <i>Txàramilagáina eróri dún.</i>
txiki	guti, gutxi, gitxi. <i>Eztokiéz ébil, txíki sólo.</i>
tzintz	muki, muskil. <i>Amá, tzíntzak!</i>
urdu	irudi, iduri, Zub. üdüri. <i>Eta... ürdu ziá... F.B.ek iragangaitzeko eran erabili ohi zuen.</i>
Uruña	Iruña. <i>Eta éramáitan zeí, pues Urúñara. Izaban Uriña.</i>
utzu	utzi, itxi, laga. <i>Gútzia útzü zue(i).</i>
xa	jada(nik), dagoeneko, honez gero. <i>Xá akáitan zú kében égotiá.</i>
xatetu	erraztatu, eskobatu, (gazt. "barrer", fr. "balayer"). <i>Xáte zán sökáltia! ¡barre la cocina!</i> Azkuek, baina, azken honetarako egortu ematen du.
xelita	sutondoko jazarleku ttiki. <i>Y un elár... xelítak eta...</i>
xin	etorri. <i>Éta gú kében órai, élurra xin ártio.</i>
xorxe	zurezko tresna, plater haundi baten antzekoa, gaztanazalaren azpian ezartzekoa. <i>Eta kolaxét, xórxe bat (...) como una baciica.</i>
xurgin-aigari	Azkue: (R-uzt), cena que se hace a media noche, souper ou réveillon que l'on fait à minuit. F.B.en ustez, baina, Eguberri bezperan (?) egiten zen. <i>Eta egítan zeíá (...) xùrgin-áigaria.</i>
zakuto	maĩndire- edo izara-ehunez eginiko zaku edo boltsa. <i>Eta géro, elkítan zeíá, ónki eginík, zákuto bátëna. Zaku-ren xumegarria dirudi.</i>
zamari	zaldi. Gazt. "acémila" ere bai izan daiteke. <i>Lenáö bizagón ánitx ásto, eta zámari.</i>
zanko	oin, Zub. zankho. <i>Eguatxára... zankuén ekúztra!</i>
zebatu	Iribarren: <i>cebar</i> , 2) Encender, prender fuego. <i>Voy a cebar el cigarro. Cebó la rueda de los fuegos. Ceba la mecha.</i> (Es acep-

	ción típica de Navarra y de uso general). <i>Zébatako, súaren zébatako</i> .
zenbra	gaztanbera, Zub. zenbera. <i>Zenbrá géro egitan zeia bérz batan</i> .
zoketa	Azkue: (B-o, BN-s, R), guante ó cazoleta en que meten una mano los segadores, para evitar heridas : gant ou coquille dont les faucheurs se couvrent la main, pour éviter des blessures. <i>Egitáiak eta zoketák</i> .
zomait	zenbait. <i>Bàlin badagó zómait gotéra...</i>
zomat	zenbat. <i>Pero lenáo, baguniá láur égún, edo zomát?</i>
zubu	zubi, Zub. zübü. <i>Baia órai, zubùtik, buéltatan dzu proze-sión(e)a</i> . Izaban <i>zibi</i> , are toponimian ere: <i>Onzibieta</i> .



BIBLIOGRAFIA

- ARTOLA, K.: *Erronkariko uskararen azken hatsak...eino're*. FLV 25, 1977.
 — : *Erronkariko uskararen azken hatsak... oraino're*. FLV 34, 1980.
 — : *Fidela Bernat anderea, euskaldun hiztun erronkariarra (I)*. FLV 58, 1991.
- AZKUE, R. M. de: *Diccionario vasco-español-francés* (repr. facsímil). Edic. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1969.
 — : *Particularidades del dialecto roncalés*. Euskera 1931 Yorrailla/ Lotazilla. Eusko-Argitaldaria, Bilbao.
- BELOKI, J. J., ELOSEGI, J., SANSINENA, P. eta MITXELENA, K.: *Contribución al conocimiento del dialecto roncalés*. RSVAP, Donostia, 1953.
- BONAPARTE, L. L.: *Études sur les trois dialectes basques des Vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribe, à Jaurrieta et à Vidángoz*. Londres, 1872.
- ESTORNÉS LASA, J.: *Erronkariko uskaraz elestak*. FLV 40, 1982.
 — : *Jesu-Kristo gore Jeinaren Ebanjelio Sainiua* (Hualde Mayo, P.P., 1860-65?). FLV 39, 1982.
 — : *Mendigatxa'k Azkue'ri kartak, 1902-1916*. FLV 43, 1984.
- IRIBARREN, J. M.: *Vocabulario navarro* (nueva edición preparada y ampliada por Ricardo Ollaquindia). Institución Príncipe de Viana. Pamplona, 1984.
- IRIGOYEN, A.: *Cartas de Mendigacha a R.M. de Azkue*. Euskera II, 1957, Bilbao.
- IZAGIRRE, K.: *Erronkariko euskal-ondakin batzuk (I)*. RSVAP, Donostia, 1959.
 — : *Erronkariko euskal-ondakin batzuk (II)*. RSVAP, Donostia, 1961.

LABURPENEA

Bigarren eta azken ekarpen honetan F. Bernaten mintzamoldean aurki daitekeen hainbat gairi buruzko iritziak ematen saiatu gara, inoiz Erronkari bereko zein inguruko beste zenbait ibarretako datu batzuekin erkatuz. Horrez gainera haren ahotik bildu testu interesgarri batzuk dakartzagu orriotara, haiei egokituriko hiztegi moduko hitz-zerrenda batez lagundurik.

RESUMEN

En esta segunda y última entrega damos unas opiniones acerca de algunos aspectos relacionados con el habla roncalesa de F. Bernat, comparándolas, a veces, con información recogida tanto en el mismo Roncal como en otros valles vecinos. Además presentamos interesantes relatos recogidos de sus labios acompañados de una lista de palabras a modo de pequeño diccionario.

RÉSUMÉ

Dans cette deuxième et dernière partie nous abordons certains aspects à l'égard du parler Roncalais de F. Bernat, en les comparant parfois à des informations ramassées en Roncal même où dans les vallées limitrophes. Nous présentons aussi plusieurs intéressants récits recueillis de vive voix, avec une liste de mots à la manière d'un petit dictionnaire.

SUMMARY

In this second and final part, we express some opinions regarding different aspects of the Roncal speech of F. Bernat, sometimes comparing it with the information gathered in Roncal itself, as well as in some neighbouring valleys. We also present some very interesting tales collected viva voce, together with a list of words to be used as a small dictionary.